

Ordezkaritza kurduaren Euskal Herriko bisitaren prentsa gosaria

Abenduak 10, osteguna,
goizeko 9:30ean Donostian.

(Hernani kalea 15, Bagera euskara elkartearen bulegoan)

Egonaldia

Abenduaren 5etik 11ra bitartean sei hizkuntza aktibista kurdu izango dira Euskal Herrian, euskararen berreskurapen esperientzia ezagutu, eta hizkuntza komunitateen arteko esperientzia trukean sakontzeko bidaidetzan. (Eranskinetan egonaldiaren laburpena dago¹)

Prentsa gosaria

Gosarian hiru bloketan banatuko dugu informazioa, kazetariak edozein unetan galderak egin, eta kontakizuna bideratzeko aukera izango dute.

- 1) Kurdistango egoera soziopolitiko orokorra.
- 2) Kurduen hizkuntza eta kulturaren berreskurapen prozesuaren egoera, gakoak eta proiektuak.
- 3) Egonaldiaren funtsetik tiraka, bizitako eta ikusitakoaz mintzatzea. Euskararen berreskurapen esperientziatik jasotako elkartrukeak, Euskal Herriari buruzko begiratuak eta bidaidetza iraunkorrak

Bertan Kurdistango hizkuntza aktibista hauek izango dira:

- Mehmet Şerif Derince
(Diyarbakir-Ameden Kurdistango hiriburuko hizkuntza eta hezkuntza arduraduna. Miloi bat biztanleko hiria da, Kurduak kudeatzen duten erakunde handiena)

- Suna Altun
(Istanbuleko Maltepe uniberstsiteko langilea)

- Ali Erdemirci
(Diyarbakireko Institutu Kurduko kidea)

- Yusuf Emmioglu
(*Teachers' Union* taldeko kidea)

- Osman Yılmaz
(Mardin *udaleko kidea*)

- Şeyhmus Önal
(Luzaroan hizkuntza aktibista izandakoa, eta *Kurdish Authors' Association*-eko kidea)

Beraiez gain Garabide Elkarteko kide diren Jon Sarasua, Txema Abarrategi, Maddi Iñarra eta Ander Bolibar ere bertan izango dira.

Oharra: Kurdueraz gain ingelesa da bertaratutako guztien hizkuntza komuna. Suna Altunek gaztelaniaz ere badaki.

Kurduak

Kurdua estaturik gabeko jatorrizko hizkuntzarik mintzatuenetakoa izateaz gain, Ekialde Ertaineko 5 estatutan eta Europako eta Ekialde Hurbileko diasporako hirietan ere hitz egiten da. Hizkuntza kurduaren historia herri kurduaren isla da, hizkuntza-komunitate handi batek bere geroa kudeatzeko izan duen eta duen bilakaera gorabeheratsua.

Une honetan Iraken bakarrik da ofiziala kurduera eta, Irakeko eta Siriako gerrek eraginda, kurduen esku dauden lurralde liberatuetan hizkuntza kurdua hezkuntza sisteman garatzen ari da eta esan dezakegu lehendabizikoz sortzen ari direla kurdueraz hezitako eta ikasitako belaunaldiak eta hau, aspaldiko aldarrikapena izateaz gain, erreferentziazko esperientzia da kurdu guztientzat.

Munduko beste bazter askotan bezala, hizkuntzaren egoeraren diagnostikoa egitean kultura gutxiagotuen artean tamalez ohikoak diren ezaugarriak aurkitzen ditugu:

- Transmisioaren etena.
- Kurduaren prestigioa higituta.
- Hizkuntzaren borrokaren zentralitate falta
- Kurduaren erabilera funtzioak galduz joan dira

Hizkuntza berreskurapena

Kurdua biziberritzearen inguruko kontzientzia zabal piztu da lurralde kurduan. Horren adierazgarri aipa daiteke Rojavan, orain arte Siriaren mende egon den Kurdistanen, hezkuntza-sistema beren gain hartzearekin batera kurdua alfabeto arabiarretik alfabeto latindarrera aldatu izana.

Baina, Truke egitasmo hau zehazten hasita, Turkiaren mende dagoen Kurdistanen zentratu beharra dugu, hara bideratuko baitugu ezagutza partekatzeko 2015eko esperientzia hau. Kurdistan turkiarrean (kokapen geografikoa adierazteko modu hau zilegi bazaigu) gorago aipatu ditugun ezaugarri berekin egiten dugu topo, diagnostiko bertsua egitera garamatzaten sintomekin, alegia.

Hizkuntza lankidetzatza

Esan dezakegu komunitate kurdua euren hizkuntza biziberritzeko egiten ari den lanak berebiziko garrantzia duela beste hizkuntza minorizatueterako eredu gisa eta baieztza dezakegu normalizazio-prozesuak eragin eta proiektio handia duela herrialdeetako eta inguruko gainontzeko komunitate gutxiagotuentzat. Horregatik Garabidek lehentasunezko eragin-esparrutzat du Ekialde Erdiko komunitate kurdua.

Une honetan gabezia bat aipatzekotan ikuspegi estrategikoaren gabezia eta plangintza orokorrik eza aitortu beharko genuke; ekimenak badira han-hemenka, baina bakoitza bere aldetik, eta biziberritze-proiektu zatikatuaren irudia gailentzen da.


Iraupena: 9:30ean hasi eta beranduenez 10:45ean amaitu

Nola heldu prentsa gosarira:

Bagera euskara elkartearen bulegoa

Hernani kalea 15 behea

20004 Donostia



Asistentzia berresteko edo ekimenaren inguruko edozein zalantza argitzeko kontaktua:

Ander Bolibar

abolibar@garabide.eus

943 25 0397 / 609930440

Twitter: [/garabide](https://twitter.com/garabide)

Facebook: [/garabideelkartea](https://facebook.com/garabideelkartea)

www.garabide.eus

Eranskina1: Egonaldiaren laburpen zirriborroa

Abenduak 5 (larunbata)

Sei hizkuntza aktibisten iritsiera Euskal Herrira

Abenduak 6 (igandea)

- Euskararen berreskurapen gakoak (Aretxabaleta)
- Hizkuntza kurduaren egoera eta desafioak (Aretxabaleta)
- Hezkuntza eta hizkuntzaren biziberritzea (Aretxabaleta)

Abenduak 7 (astelehena)

- Hizkuntza berreskuratzeko arloak: hedabideak, enpresa,... (Aretxabaleta)
- Goienara bisita (Arrasate)
- Topagunea ezagutu (Arrasate)
- Arantzazura irteera (Oñati)

Abenduak 8 (asteartea)

- Durangoko Azoka (Durango)

Abenduak 9 (asteazkena)

- Erakunde publiko lokalen hizkuntza-plangintzak (Lasarte)
- Emun: Lan mundua euskaratzen (Arrasate)

Abenduak 10 (osteguna)

- **Prensa gosaria (Donostia)**
- Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara plangintza (Donostia)
- Harrera instituzionala
- Martin Ugalde bisitatu (Soziolinguistika Klusterra eta Kontseilua) (Andoain)
- Kilometroak (Usurbil)
- Herri aldizkariak - Karkara (Orio)

Abenduak 11 (ostirala)

- Arizmendi ikastolara bisitaldia (Aretxabaleta)
- HUHEZI Unibertsitatearen esperientzia (Eskoriatza)
- Agur jaia

Eranskina2: Bidaide egitasmoa

HIZKUNTZARTEKO
EUSKAL LANKIDETZA
SAREA

garabide
erretopiq



Ezaugarriak

- Bidaidetza kontzeptuan oinarritutako sistema da, herrien esperientziak partekatzean oinarritutako lankidetzaren sistema berria.
- Sistema partekatua da, ez asistentzialista, ez du dependentzia jarrera sortzen, ez da oinarritzen proiektuak ordaintzean.
- Sistema integratua da, hainbat jardun, eragile eta ekintza mota integratzen dituelako: trukeak, formazio jarraituak, bidelagun-jarduerak eta aholkularitza.
- Euskal Herriaren esperientziatik hizkuntza biziberritzeko estrategiak garatzeko bidaide izatearen gauzaren praktikoa da.
- Munduko hiztun komunitateetako eragileak eta euskalgintzako eragileak elkarlanera aktibatzen ditu.

Herri bidaidetza urte-arteko programa

Jatorrizko hiztun komunitateak garatzeko lankidetzaren programa integratua

⊙ Epea

- Programak lau urteko epea du, 2013tik 2017ra.
- Aurretik, 2007tik, programa hau posible izan dadin proiektu, formazio, harreman eta indar-bilketa ugari egin da Euskal Herriko eta Hegoaldeko erakundeen artean.

⊙ Esparruak

- Bidaide intentsiboan esparrua:** Kichwa, Nasa, Kaqchiquel eta Nahuatl
- Bidaide ertalaren esparrua:** Mapuche, Aimara, Guaraní, Maya Yukateko, Amazigh eta kurduak
- Hurbiltze esparrua:** bidaidetza sistema honetako interesak ekarri hurbiltzen diren herri eta erakunde berriak (gehienez urtean bi).

⊙ Eragileak

- Munduko jatorrizko hiztun komunitateetan hizkuntzaren berreskurapena lantzen ari diren gizarte erakunde eta pertsonak.
- Munduko jatorrizko hiztun komunitateetako eragile publiko eta sozialak.

Boskalgintzako erakundeak

- Euskalgintzaren esperientzia pilulu duten bidagileak
- Euskalgintzaren inguruko sarbideak eta ikasleak.
- Garabideko teknikeri eta aholkulariak.

⊙ Ekintzak

- Formazio espezializatua hizkuntzaren garapenerako arlo zehatzetan.
- Esperientzia-trukeak erakundeetako gidari, langile eta militanteekin.
- Estrategia mailako aholkularitza
- Euskalgintzako erakundeen eta jatorrizko herrietako erakundeen arteko bisita teknikoak.
- Hizkuntza biziberritzeko proiektu zehatzen sorkuntza eta jarraipena.

⊗ **Parlaide izan ohi ditugun euskal erakundeak**

- | | |
|---|------------------------------|
| ○ UEU | ○ UZEI |
| ○ EHUko munduko hizkuntza ondarearen UNESCO Katedra | ○ UEMA |
| ○ HUHEZI fakultatea | ○ Soziolinguistika Klusterra |
| ○ Golea komunikazio taldea | ○ EMUN |
| ○ Berria | ○ Elhuyar |
| ○ Argia | ○ AEK |
| ○ Euskararen Kontseilua | ○ Ikastolen Elkarte |
| ○ Euskaltzaleen Elkarte | ○ Bay&by fundazioa |
| ○ bertako hainbat euskara elkarte | |

⊗ **Programaren aurrekariak: orain arte jorratu ditugun bideak**

- Euskararen esperientziaren sistematizazioa munduko herrietara: 4 liburuxka eta 4 bideo berrak bilduma.
- Jatorrizko Hizkuntzak Biziberritzeko Estrategiak gradu-ondoko ikasketara arautua, Huhezi fakultatearekin elkarlanean, jatorrizko herrietako eragileak hiztun komunitatearen estrategia mailan formatzeko. Bi edizio: 2011an eta 2013an.
- Truke programak, jatorrizko hiztun komunitateetako eragileak euskalgintzako eragileekin eta errealtatearekin kontaktuan jarri, hilabeteko programa intentsiboak. Bost edizio: 2007, 2008, 2009, 2010 eta 2012.
- Boliviako gobernuari aholkularitza, hizkuntza biziberritzeko estrategietan, hezkuntzako hizkuntza-ereduetan eta unibertsitate indigenaren sorrera prozesuan.
- Komunikatzaileak formatzeko proiektua Ekuadorren, kichwerazko telebista sortzeko pausuak prestatzen.
- Kolonbiako Nasa hiztun komunitatean haur hezkuntza jatorrizko hizkuntzan lantzeko formazio proiektua.
- Kaqchiquel hizkuntza hezkuntza arautuan lantzeko hezkuntza proiektuen bidaldetza Guatemalan.
- Maputxe (Txilen), aimara eta kechwa (Bolivian), kaqchiquel (Guatemalan), mala yukateko eta nahuatl (Mexikon) eta kichwa (Ekuadorren) hiztun komunitateekin hainbat proiektuen inguruko iritzi trukea eta aholkularitza.

urte arteko HERRI BIDAIDETZA programa

Bidaide intentsiboak

Kaqchikel

⇒ Lan-arlo nagusiak

- Irakaskuntza jatorrizko hizkuntzan bultzatu: ikastetxe pilotuak
- Adin txikiakoen murgiltze prozesua ahalbidetzeko irakasleak sentibilizatu eta trebatzeko aholkularitza jarraitua eskaini.
- Eskola materiala sortu
- Jatorrizko hizkuntzaren balioaz sentiberatu
- Truke eta Aditu Tituluetako esperientzia hartu.

⇒ Erakundeak

- Fundación Kaqchikel
- Red de Centros de Educación Ruk'u'x G'atinamit
- Fundación Rigoberta Menchu Tum
- Academia de las Lenguas Mayas de Guatemala (Sección Kaqchikel)

Nasa

⇒ Lan-arlo nagusiak

- Irakasleak eta sortzaileak gaitu eskola materiala jatorrizko hizkuntzan sortzeko.
- Hizkuntzaren corpusa gaurkotzeko plana diseinatu
- Hizkuntza biziberritzeko estrategiez formazioa eragile politiko eta sozialei

⇒ Erakundeak

- CRIC (Consejo Regional Indígena del Cauca)
- Q'xhab Wala Kiwe-ACIN (Asociación Cabildos Indígenas del Norte)
- Nasa Öss (Asociación Indígena de Reasentamientos)
- Juan Tama (Asociación de Cabildos de Inzá, Tierradentro)

Nahuatl

⇒ Lan-arlo nagusiak

- Nahuatl hizkuntza indartzeko estrategietan formakuntza eta aholkularitza eragile sozialei.
- Irakaskuntzan murgiltze metodoa ezarri Nahuatl hizkuntzan.

⇒ Erakundeak

- Tosepan Titataniske Kooperatiba
- Centro de Formación Kalitaxpetaniloayan

Mapuche

⇒ Lan-arlo nagusiak

- Mapuche herriaren kontzientzia politikoa lantzen ari diren eragileei hizkuntza biziberritzeko estrategietan formazio jarraitua eman.
- Corpus eta hedabide arloetan aholkularitza.

⇒ Erakundeak

- Corporación Mapuche Xeg Xeg
- Universidad de la Frontera, Temuco

Aimara

⇒ Lan-arlo nagusiak

- Aimara hizkuntzaren corpusaren estandaritze eta garapen terminologikoa.
- Eragile politiko eta sozialei hizkuntzaren estrategia nagusiei buruzko formazioa

⇒ Erakundeak

- UNIBOL unibertsitate indigena
- Aimara hizkuntzaren akademia

Bidaide ertainak

Maya Yukateko

⇒ Lan-arlo nagusiak

- Landa eremutik datozen unibertsitario gazteei mala hizkuntzari eusteko motibazio sailoak landu.
- Malerazko irratigintza sustatu.

⇒ Erakundeak

- Meridako Unibertsitateko irakasle malak
- ProIndigenas. Información y comunicación.



Kichwa

⇒ Lan-arlo nagusiak

- Ekuadorreko gobernuak eragileak eta mugimendu indigenaren baitako eragileak formatu hizkuntza biziberritzeko estrategietan.
- Hizkuntzaren biziberritze plan orokorraren diseinua aholkatu Imbabura probintzian.
- Irakasleak (500 irakasle) prestatu jatorrizko hizkuntzan irakasteko.
- Hedabideetan eta interneten hizkuntza proiektu hasiberen aholkularitza egin.
- Hezkuntza ministerioko eta irakaskuntza alorreko eragileekin hezkuntzako eredu linguistikoak landu.

⇒ Erakundeak

- Kichwasun. Kichwera biziberritzeko erakundea. Otavalo
- SENESCYT. Ekuadorreko gobernuak formazio zentroa.
- Cayambé herriaren konfederazioa eta Kawsay elkarteak.
- TINKUNAKUY Centro de Pensamiento y Culturas Andinas

Amazigh

⇒ Lan-arlo nagusiak

- Truke eta Aditu Tituluaren barruan lehen kontaktuak: eragileen formazioa

⇒ Erakundeak

- International Amazigh Congress. Nazioarteko Amazig kongresua.

Kurduak

⇒ Lan-arlo nagusiak

- Truke eta Aditu Tituluaren barruan lehen kontaktuak: eragileen formazioa.

⇒ Erakundeak

- Hizkuntza Biziberritzeko Istanbulgo Institutu Kurdua